


Mikro-ipuinak

2008

Ruper Ordorika • Ainhoa Asiain Ripoll • Joseba Irazoki
Goienetxe • Olatz Medrano Kareaga • Nerea Martínez
Biurrun • Ohian Urrea Imaz • Beñat Ziarra Apestegi •
Xabier Alzuguren Martinikorena • Iñaki Leunda Vigara

2009

Kike Amonarriz-Iraski Serrano • Malen Barriola Eskubi •
Aizpea De Atxa Cancel • Oier Larunbe Lizarraga • Ane Ortega
Arlegi • Leyre Unzué López • Claudia Solano Goñi • Garazi
Pérez de Larraya Percaz • Amaia Mikeo Alducin



 EUSKARA
Kultur Elkargoa

 PAMIELA
argitaratzailea



Mikro-ipuinak

Atarrabia, 2008 • Iruñea, 2009



PAMIELA
argitaletza



EUSTARA
Kultur Elkargoa

Azala:
Lamia-Pamiela

Babeslea:



Gure eskerrik beroenak epaimahaikide lanetan
aritu diren lagunei:
MIGEL ASIAIN, OSIO, ALBERTO BARANDIARAN,
JOXEMIEL BIDADOR, INMA ERREA eta ANGEL ERRO



© EKE, 2010

© Pamiela argitalpen honengatik

© Argazkiak: Adolfo Lakunza

Diseinua eta fotokonposizioa:

Pamiela. Agustindarren industrialdea/Soltxate

G kalea, B6 nabea. 31013 Iruña

Tel.: 948 32 65 35 • Faxa: 948 32 66 02

pamiela@pamiela.com

www.pamiela.com

L.G.: Na-1.526/2010

ISBN: 978-84-7681-638-7

Nafarroan Ona Industria Gráficak moldatu eta egina

Agustindarren industrialdea/Soltxate

F kalea, B6 nabea. 31013 Iruña

Printed in Navarre

HITZAURREA

Irakurle agurgarri hori:

Euskara Kultur Elkargoak eta Pamiela Etxeak antolatutako III. eta IV. Mikro-ipuin Lehiaketan saritutako lanak biltzen dituen liburuxka duzu hau.

Aurrekoetan bezala, Nafarroa osoko ikastetxe ugari hartu dute parte, ipuinak ehun hitz baino gutxiagokoak izatea baldintza bereizle gisara duen gure lehiaketa honen hirugarren eta laugarren edizioetan. Aurrekoetan bezala, ehun hitzeko ehunka ipuinek hamaika gai jorratu dute, hamaika ikuspuntu, hamaika modu. Denen artetik, hoberenak hartu ditugu, 2008ko zortzi, eta 2009ko beste zortzi. Horien osagarri, sari-banatzaileritako hiru euskaldun ospetsuk –**Ruper Ordorika** abeslariak, batetik, eta **Kike Amonarriz** eta **Ilaski Serrano** telebista-aurkezleek, bestetik– testu bana ekarri digute opari mikro-liburu honetara.

* * *

Mikro-ipuinen ibilbide arrakastatsuak pizten digun pozarekin batera, **Joxemiel Bidadorren** heriotzak sortutako samina ere adierazi behar



dugu orainoan. Joxemiel epaimahaikide izan genuen lehiaketan, hasiera-hasieratik, eta zeregin horretan aritu zen ia azken momentura arte: 2009ko epaia emateko lanetan parte hartu eta hilabete eta erdira hil zen. Mikro-ipuinen lehiaketaren inguruan aritzen garenok galera handia pairatu dugu, epaimahaikidearekin batera adiskidea ere joan baitzaigu. Lehiaketari ekarpen bikaina egin zion Bidadorrek, aditu saiatua baitzen, euskararen arloan nahiz literaturarenean. Bere jakinduria ekarri zuen lehiaketara, eta, aldi berean, Joxemiel irakasleak, bokaziozko irakasle ororen antzera, frogatu zuen bazekiela, baita ere, bere burua ikasleen lekuan paratzen –haien ametsen berri jasotzen eta ematen–: mikro-ipuinen lehiaketan beti bihotz-zabal agertu zen, beti, gazte parte-hartzaileen alde, beti, umorez eta amorez. Guk beti gordeko dugu haren oroitzapen goxoa.

Inma Errea eta Pili Yoldi, Lehiaketa egiten dugun guztion izenean

III. Mikro-ipuin lehiaketa 2008



Ruper Ordorika

Ainhoa Asiain Ripoll, Joseba Irazoki Goienetxe, Olatz Medrano Kareaga,
Nerea Martínez Biurrún, Ohian Urrea Imaz, Beñat Ziarra Apestegi,
Xabier Alzuguren Martinikorena, Iñaki Leunda Vigarra





Nor da?

Behin batez, Cadiz-eko hego muturrean lagunari galdetu nion:

—Zer dira argi haiek?

—Hura Tanjer da. Atzo ez ziren ageri, ekialdeko haizea zebilelako. Gaur, berriz, mendebalarekin urrutiko gauzak hobeki ikusten dira.

Kantutxo hau ondu nuen pentsatuz haize aldaketa nahikoa dela lehen ikusten ez genuena ikusteko:

Nor da gogoan daukazuna, nor da? Lo aurreko zure instanteen jabe, nor da? Bihotzean daramazuna, nor da? Zure begietan gorderik, nor da? Nor da gogoan daukazuna, nor da? Tanjerreko argi urrunak Ez dira aski zu ikusteko. Mendebaldeko haizea lehuna. Nahi nuke nik zu ezagutzeko...

RUPER ORDORIKA



Muxu aspertuak

Apalak apalean. Aspalditik mugitu gabe.
Aspalditik inork begiratu gabe. Buru gainean
hautsa pilatzen. Hutsaren hurrengoa. Edo hu-
rrengoaren hutsa? Elkarrekin muxuka.

Gulliverrek Aliziari:

—Asperturik zaude?

Aliziak Gulliverri:

—Bai. Ispilurik gabe.

Neskak mutikoari:

—Eta zu?

—Zu bezainbeste. Abenturarik ez.

Bat-batean esku misteriotso bat, aspaldiko
apaltasuna apurtzen. Berriro orriak airera.
Orrialdeak hegan egiten.

Aliziak bere buruari: «Zorionak Gulliver».

AINHOA ASIAIN RIPOLL

DBH. 3., Atarrabiako Paz de Ziganda Ikastola

LEHEN SARIA

Mikro-ipuina

Bazen behin Pepito izeneko gizon bat. Pepito Etxalarren bizi zen. Pepitok munduaren azkeneraino iritsi nahi zuen. Pepito beti biraka eta biraka ibiltzen zen. Azkenean konturatu zen Etxalarrerri bost buelta eman ziola. Bere emazteak esan zion:

—Mundua borobila duk. Borobil-borobila.

JOSEBA IRAZOKI GOIENETXE

LH. 6., Etxalarko Landagain Ikastetxe Publikoa

OHOREZKO AIPAMENA

Haize Errota

Bazegoen haize errota bat, haizeak mugiarazten zuena. Mendi gainean tinko erabat, lurraldearen harroena.

Behin, haizerik ez zegoelarik, errota geldituta, ez tinko ez harrorik.

OLATZ MEDRANO KAREAGA

LH. 5., Tafallako Garcés de los Fayos Ikastola,

OHOREZKO AIPAMENA

Gominola

Bazen behin neska bat Gominola izenekoa. Eskolara joaten zen eta denek berarekin egon nahi zuten zapore ona zuelako; horregatik, zaporea ez kentzeko, ez zen dutxatzen. Egun batean, nekatuta eta izerditan zegoen, eta dutxatu behar izan zuen, baina zaporea kendu zitzaion. Izenez aldatu behar izan zuen, eta Nerea izena jarri zuen. Egun hartatik aurrera, bere gelakoek ez zioten ezer eskatzen, guzti-guztia BEREZA zelako.

NEREA MARTÍNEZ BIURRUN
L.H. 3., Tafallako Garcés de los Fayos Ikastola
FINALISTA

Juantxikiren sudurrra

Bazen behin Juantxiki izeneko mutil tuntun bat.

Egun batean, Juantxikik inurri bat sartu zuen sudurretik, baina kilimak egiten zizkionez arkatz zorrotz bat hartu eta sudurretik sartu zuen. Inurria iltzatu zuen, baina arkatzaren punta puskatu egin zen eta han gelditu ziren biak, inurria eta punta. Handik aste batera, medikura joan zen, mukiak beltzak zituelako, eta han txotx bat sartu zioten, inurria eta arkatz punta kentzeko; baina txotxa apurtu zen, eta hor gelditu ziren hirurak.

Hurrengo egunean, Juantxikik doministiku egin zuen, eta hiruak atera egin ziren.

OHIAN URRA IMAZ

L.H. 5., Zizur Nagusiko Erreniega Ikastetxe Publikoa

FINALISTA

Ametsak, ametsak beti dira

Ba zeuden bi zuhaitz baso batean, eta esan zion batek besteari:

—Ni papera egiten banaute, artista baten margolanaren papera izango naiz.

Egun batean, zuhaitz hori eraman zuten, eta ipurdiak garbitzeko papera egin zuten.

BEÑAT ZIARRA APESTEGI
DBH 2. Berriozarko Institutua
FINALISTA

Florestente gela: 4C

Bazen behin, 4C-ko gelan, 9 florestente: Iñaki, Urko, Iosu, Xanti, Asier, Xabier, Julen, Gaizka eta Sergio. Azken hau bereziena. Argitsuena, baina zaharrena.

Behin, ostiral neketsu batean, gelako ikasleak argiekin jolasean zeudela, Sergiok ahal zuen bezala eutsi egiten zuen, baina, bat-batean, argiak piztuak zeudenean, Sergio itzali zen. Denak hasi ziren oihukatzen eta esaten:

—Eeeeeez Seeeergio!!!

Baina berriro ere piztu zen, eta gainontze-koak lasaitu egin ziren.

Larunbatean eta igandean ez zieten argiei eman, eta lagunek galdetzen zioten Sergiori ea nola zegoen, baina ez zuten erantzunik jasotzen.

Astelehenean argiak piztu zituzten eta Sergio ez zen piztu... Mitxel ekarri zuten...

XABIER ALZUGUREN MARTINIKORENA
DBH 4., Iruñeko San Fermin Ikastola
FINALISTA

Gu

Egun batean, hiztegia hartu nuen. Orriak pasatu nituen, ez nekiela non gelditu. Erabakia hartu nuen, eta gelditu egin nintzen. Aurrean neukan orrialdearen azkeneko hitza «gu» zen. Definizioa irakurri eta izenordain pertsonala dela esaten zuen. Baina niri ez zitzaidan batere argi gelditu zer garen gu.

Sukaldera joan nintzen, nire amari galdetzerara eta, egia esan, ez zizkidan zalantzak argitu.

Kalera atera nintzen, eta nire aitona ikusi nuen. Berari galdetu nion, baina berak bere bizitza osoa kontatu zidan gertatutako guztia azaltzen, eta ni oraindikan korapilatuagoa aterara nintzen.

Liburutegira abiatu, eta azkeneko ilarako ordenagailu batean Interneten sartu nintzen. Hobe hori egin izan ez banu.

Nik zer garen jakin nahi nuen bakarrik.

IÑAKI LEUNDA VIGARA
DBH 3., Paz de Ziganda Ikastolako
FINALISTA

IV. Mikro-ipuain lehiaketa 2009



Kike Amonarriz-Ilaski Serrano
Malen Barriola Eskubi, Aizpea De Arxa Cancel,
Oier Larunbe Lizarraga, Ane Ortega Arlegi,
Leyre Unzue López, Claudia Solano Goñi,
Garazi Pérez de Larraya Percaz, Amaia Mikeo Alducin





Mikrosarrera

Iruñean ba omen da hasieran bukatzen diren ipuintxoak kontatzen dituen Ane Ortega ize-neko neskatiko bat. Idatzi zuen azkena hastera zihoala «Zer duzu buruan niri galdetzeko?» esan omen zion Oier Larunbek. Oier Txantreatik zetorren eta bertan Aizpea De Atxa ikusi zuen futbol zelaiaren erdi-erdian, gola sartzeko prest. Bezperan, euria ari zuen eta Aizpea, Claudia Solanoren Lizarrako etxean geratu zen lotan Txanogorritxorekin batera. Txanogorritxo Pinotxoren laguna zen eta Amaia Mikeori deitu zion eskerrak emateko Pinotxori labana sudurretik kendu ziolako. Amaia une horretan balkoian zegoen Malen Barriolak mutiko bati oparitutako hodeia askatzen. Nora iritsiko ote zen hodeia? Leyre Unzueri Maite deitzen dioten lekura edo aitak Garazi Perez de Larrayari Egunkariko berri kezagarriak irakurtzen dizkion etxera?

Zenbat istorio eder, zenbat lagun berri... mikroegun batean!

KIKE AMONARRIZ-ILASKI SERRANO



Hodei txikiaren ipuin zentzugabea

Aitzinean, mutiko bati hodei txiki bat oparitu zioten, soka batekin lotuta. Baina nola jaitsi ez zekienez balkoian lotu zuen.

Egun batean, soka apurtu eta haize indartsu batek jaiotako tokira eraman zuen.

Hala ere, egun gutxi barru, haize leun batek Iparralderantz bultzatu zuen.

—Nora goaz?, galdetu zion hodeitxoak.

—Ipar Polora, erantzun zion haizeak.

Ipar Polora iritsi ziren eta hodeia pingui-noen lagun egin zen. Baina izugarritzko hotza egiten zuen goiz batean hodeia elur malutetan desegin zen

MALEN BARRIOLA ESKUBI

L.H. 5., Iruñeko San Frantzisko Ikastetxe Publikoa

LEHEN SARIA

LEHEN HEZKUNTZA

Bota

Dena zegoen nire esku, irabaztea edo galtzea. Futbol zelaiaren erdian nengoen eta guztiak zeuden niri begira. Atezaina alde batetik bestera zebilen baloiaren esperoan, baloia beregana noiz joango. Bat-batean entrenatzaileak behingoz jaurtitzeko IV agindu zidanean, ziurtasun osoz, baloiari ostikoa eman eta gaizki lotutako bota, baloiarekin batera hegan abiatu zen, txoria balitz bezala. Gora doan guztia, goiz edo berandu jaisten denez, behe-rantz hasi ziren biak eta bota atezainari kaskarrean kolpe bat eman eta konortea galdu zuen aldi berean, baloia atean sartu zen.

AIZPEA DE ATXA CANCEL

LH. 6., Iruñeko Bernart Etxepare Ikastetxea

OHOREZKO AIPAMENA

LEHEN HEZKUNTZA

Galdera

Nik banuen galdera bat eta galderak zera galdetu zidan:

—Zer duzu buruan niri galdetzeko? —harritua gelditu nintzen hori entzutean

—Galderek ez dugu galderik erantzuten —erantsi zuen galderak— erantzuna nahi baldin ba duzu ez egin galderak eta ekin ekintzari.

Ekintza honen ondoren harritua gelditu nintzen galderek zer egin dezaketen jakin nuen. Hausnartze baten ondoren konturatu nintzen banekiela nire galderaren erantzuna eta geroztik erantzunak nahi ditudan bakoi-tzean galderei galdetzen diet erantzuna.

OIER LARUNBE LIZARRAGA

LH. 6., Lakuntzako Luis Fuentes Ikastetxe Publikoa

OHOREZKO AIPAMENA

LEHEN HEZKUNTZA

Bazen behin

Bazen behin erletxo txiki txiki bat. Erletxo txiki txiki hori loretxo txiki batean bizitzen zen. Bazen behin loretxo txiki bat. Loretxo txiki hori zuhaixka batean bizitzen zen.

Bazen behin zuhaixka bat. Zuhaixka hori zelai batean bizitzen zen. Bazen behin zelai bat. Zelai hori mendi handi batean bizitzen zen. Bazen behin mendi handi bat. Mendi handi hori mundu urrun eta oso handi batean bizi zen. Bazen behin mundu oso handi bat. Mundu hori gure Unibertso zabalean zegoen. Bazen behin Unibertso zabala. Unibertso handi hori, ipuintxo batean sartzen zen.

Bazen behin, bakarrik behin, ipuintxo motz bat. Eta ipuintxo hori, hasieran bukatu zen.

ANE ORTEGA ARLEGI

LH. 6., Iruñeko San Frantzisko Ikastetxe Publikoa

OHOREZKO AIPAMENA

LEHEN HEZKUNTZA

Hemen Maite deitzen didate

Hemen Maite deitzen didate, ez dakit zenbat urte ditudan. Leku honetan egotea ez zait gustatzen, baina nori kontatu nire sentimenduak?

Egunero niri bisitatzera etortzen diren pertsonak nola nagoen galdetzen didate, haiei zer axola zaie? Egia esanda jatorrak dira, baina amak esan dit ezezagunekin ez hitz egiteko. Ezezagunei behin bakarrik hitz egin nien: haiek «Ongi zaude, amona?» galdetu eta nik «bai» erantzun nien.

Ez dakit ze ordu den ezta ze egun den ere. Bakarrik nago. Ez dut inorengan konfiatzen. Dena ahaztu egin zait, nire bizitza desagertu izango balitz bezala sentitzen naiz. Amarekin joan nahi dut...

LEYRE UNZUE LÓPEZ
DBH. 4., Iruñeko Biurdana Institutua
LEHEN SARIA
BIGARREN HEZKUNTZA

Txanogorritxo

Behin batean bazegoen Txanogorritxo bere amarekin etxean. Honek, amona gaixoari bisita egiteko asmoz, bere soineko gogokoena eta kapa gorria jantzi, ile-txirikordak egin eta txaroleko zapatak jantzi zituen. Ondoren, ezti goxoa, masusta mermelada eta txokolatzeko gaileta egin berriekin betetako otarra hartuta, azkenik atea zabaldu zuen.

Baina, euria ari zuen. Eta Txanogorritxo etxean geratu zen.

CLAUDIA SOLANO GOÑI
DBH.4., Lizarrako Lizarraldea Institutua
OHOREZKO AIPAMENA
BIGARREN HEZKUNTZA

Egunkariko berria

Osteguna zen eta hirurak afaltzen geunden. Gauero bezala, aitak afaltzen zuen bitartean egunkaria irakurtzen zigun. «Begira zer agertzen den hemen: Amaia Goñi aurkitu dute bere etxean hilda. Hiltzaileak etxe guztia garbitu du, komuna izan ezik eta han da hil duen tokia...» esan zuen aitak. Orduan oroitu nintzen, odola garbitzea ahaztu zitzaidala.

GARAZI PÉREZ DE LARRAYA PERCAZ
DBH.4., Iruñeko Biurdana Institutua
OHOREZKO AIPAMENA
BIGARREN HEZKUNTZA

Pinotxo

Haurra ispiluaren aurrean geratu eta laban bat eskuetan zuela sudurrera hurbiltzen ari zen, orduan, ama hurbildu eta labana sudurretik kendu galdetu zion: «Zer duzu?» eta umeak erantzun zion: «Gezurrengandik ihes egin nahi dut».

AMAIA MIKEO ALDUCIN
DBH.4., Iruñeko Biurdana Institutua
OHOREZKO AIPAMENA
BIGARREN HEZKUNTZA



AURKIBIDEA

HITZAURREA	3
------------------	---

2008ko Mikro-ipu in lehiaketa

Nor da?

RUPER ORDORIKA	7
----------------------	---

Muxu aspertuak

AINHOA ASIAIN RIPOLL.....	8
---------------------------	---

Mikro-ipuina

JOSEBA IRAZOKI GOIENETXE.....	9
-------------------------------	---

Haize errota

OLATZ MEDRANO KAREAGA.....	10
----------------------------	----

Gominola

NEREA MARTÍNEZ	11
----------------------	----

Juantxikiren sudurra

OHIAN URRRA IMAZ	12
------------------------	----

Ametsak ametsak beti dira

BEÑAT ZIARRA APESTEGI.....	13
----------------------------	----

Florestente gela:4C

XABIER ALZUGUREN MARTINIKORENA.....	14
-------------------------------------	----

Gu

IÑAKI LEUNDA VIGARA	15
---------------------------	----

2009ko Mikro-ipuin lehiaketa

Mikrosarrera

KIKE AMONARRIZ-ILASKI SERRANO 19

Hodei txikiaren ipuin zentzugabea

MALEN BARRIOLA ESKUBI 20

Bota

AIZPEA DE ATXA CANCEL 21

Galdera

OIER LARUNBE LIZARRAGA 22

Bazen behin

ANE ORTEGA ARLEGI 23

Hemen Maite deitzen didate

LEYRE UNZUE LÓPEZ..... 24

Txanogorritxo

CLAUDIA SOLANO GOÑI 25

Egunkariko berria

GARAZI PÉREZ DE LARRAYA PERCAZ 26

Pinotxo

AMAIA MIKEO ALDUCIN 27

Mikro-ipuinak

Atarrabia 2008 • Iruñea 2009

liburuaren inprimaketa 2010eko
maiatzean burutu zen
Ona Industria Gráfica moldiztegian,
fotokonposiziorako
A Garamond eta Marten
letra motak erabiliz.
Lehenbiziko edizio hau
lau mila alekoa
izan da.



Mikro-ipuin lehiaketa



Liburuxka honetan biltzen diren testuak hoberenak izan dira Euskara Kultur Elkargoak eta Pamiela Argitaletxeak antolatuta duten III. eta IV. Mikro-ipuin lehiaketan.

Haiekin batera, RUPER ORDORIKAK, KIKE AMONARRIZEK eta ILASKI SERRANOK mikro-ipuin bana ere eskaini digute *mikro-liburu* honetan.

